



AUZO BILERAK 2025

AUZO: Gurutze

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2025/10/07	18:00	20:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Garazi Urdampilleta, Ibon Mitxelena, Ibintza Iragorri		
Herritarrak:	Euskaraz: 9		Elebitan: 0
	Emakumezkoak: 4		Gizonezkoak: 5
	<30 urte:	31-50 urte: 2	51-65 urte: 4 >66 urte: 3

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
Legealdi planaren jarraipena	Legealdi erdiaren balorazioa egin ahal izateko esan behar da gaur egun herrian dugun guztia, urtez luzez udal honek egin duen ibilbidearen ondorio zuzena dela. Aurrekoek egindako lanen uza. Guk lekukoa hartu dugu eta ildo horretatik lanean dihardugu. Horregatik, Oiartzunen ditugun zerbitzuen berri ematea eman nahiko genuke, izan ere, herri bereziki aberatsa da zerbitzu publikoei dagokienean. • Etxez etxeko zerbitzua, bertan 17 udal langilek lan egiten dute eta momentu honetan 79 onuradun ditugu. • Zaintzadi; bakardade ez hautaturen prebentzio lanetan lan egiten du. Esku hartze zuzenak egiteaz gain, komunitatea aktibatu eta auzoz auzo taldetxoak sortzen ari dira. • Landetxe, 2023an inauguratu zen, urtean 200 ekitaldi eta 11.500 ikusle izan ditu. Aipatzekoa da ekintzen %71 herri eragileek programatutakoa dela. • Udaleko ur zerbitzua, udalak berak kudeatzen du herriko ur hornidura. 300km hoditeria ditugu eta hauen mantenua ere egin behar da.



- **Ludoteka, gazte topaleku eta udal udalekuak.** Ludotekan hilabetera 200 bat haur ibiltzen dira, topalekuan 500 bat gazte hileko eta udalekuetan 400 haurrek parte hartzen dute.
- **Udal ikastola partzuergoa:** 0-3 urte bitarteko haur eskola zerbitzua.
- **Kiroldegia eta kirol azpiegiturak,** 5000 bazkide ditu gaur egun kiroldegia eta hilean 18.000 erabiltzaile inguru.
- **Beilatoki publikoa,** beste herrietan zerbitzua pribatizatuta dago, gure kausan, udalarena da eta horrek erabilera eta prezio publikoak finkatzeko aukera ematen du.
- **Arditturriko minak,** bisitak guk kudeatzen ditugu.
- **Soinuenea eta Luberri** fundazioko kide da udala.
- **Arritxuloko** aterpetxea.

Lekukoa hartu eta lan egiteko modu berari jarraiki, legegintzaldi honetan honako **proiektu hauek burutu dira:**

- **Ferminene,** ongizatearen etxea inauguratu dugu.
- **Herritarren Arretarako** gune berria martxan jarri dugu. 450 bat herritar artatzen ditu eta 2 700 inguru dei izaten ditu hilabeteen.
- **Gazte topalekuarekin** jarraituz, zerbitzua zabaldu da eta sexu aholkularitza zerbitzua txertatu da.
- **Kulturartekotasuna eta euskarari** dagokionez, Uda Plazan egitasmoa martxan jarri dugu haur etorri berriak euskaraz murgiltzeko, guraso etorri berrientzat ere doako euskara ikastaroak eskainiko dira eta Mugaldeko Udaleku Ibiltariak ere antolatu dugu, mugaz gaindiko nerabeen saretzea euskaraz sustatzeko.
- **Ongizatearen** alorrean, hotzaren aurkako kanpaina martxan jarri dugu, neguan kale egoeran dauden herritarrei aterpea emateko, Lezo eta Pasaiarekin batera kale egoeran bizi direnentzat aterpe berria egin dugu eta arretarako itxaron zerrenda murriztu dugu.
- **Emakumeentzako arreta juridikoa** ematen duen zerbitzua ere martxan jarri dugu. 32 emakume artatu dira eta urte amaiera arte agenda beteta dago.



- **Bitartekaritza zerbitzua** ere sortu dugu bizilagunen artean egon litezkeen egoera gatazkatsuak bideratzeko asmoz.
- **Merkataritza txikia** sustatzeko dirulaguntza lerroa martxan jarri dugu. 35.000 euro azken bost urteetan irekitako negozioentzako. 16.000 euro banatu dira bost onuradunen artean eta horietako bat okupazio berria da.
- **Mugikortasun eta energia planak** onartu eta gauzatzen hasiak gara dagoeneko. Rafael pikabea kalean konponketak egiten ari gara, Kiroldegian eguzki panelak jarri dira eta auzoetan bizikleta aparkalekuak jarriko ditugu.
- **Hirigintza** planei dagokionez, herritarrekin landu dira Arraguako eta ELI6ko garapen urbanistikoak.
- **Naturguneen azterketa** ere egin dugu. Bioaniztasunaren diagnostiko bat egin dugu, suteak prebenitzeko larre planarekin jarraitzen dugu eta bertako landareria landatzeko pinuak eta haritz amerikarrak erauzi dira 30 Ha.

Jakingo duzuen moduan legegintzaldi hasieran **Oiartzun Burujabe** izeneko prozesuan sartu zen udala eta honako proiektu hauek garatu dira bertatik:

- **Energia bulegoa** jarri da Mendiburu kalean. Astelehenetan hitzordua eskatuz lan egiten dute, etxeko fakturak aztertzen dira. Datu moduan, bataz beste 400 euroko aurrezkia lortu dute bertara joan diren Oiartzuarrek.
- **Udan ordaindutako praktikaldia** egin dute 7 gaztek lehen sektorean.
- **Udal musika eskolari** dagokionez, Ibargain musika eskolari eta Soinueneako musika eskolari jarraipena emango dien proiektua gauzatu da.
- **Liburutegia** eraberritzeko parte hartze prozesua egin da, urte eta erdi inguru iraun du eta herriko sektore ezberdinak gonbidatu dira saioetan parte hartzera.
- **Zaintzaren** inguruko ekintza plana ere abendurako izango dugu, bertan gai honetan hobetzeko eman behar diren pausuak zein diren bilduko da.

Herritarrekin lotura duten proiektu hauez gain, azpiegiturei lotutako beste hainbat **inbertsio** ere egin dira: Ugaldetxoko futbol zelaia berritu da, Ugaldetxoko poligonoetako bidegorria egin da, Ugaldetxon beste bi lotura berri egin zaizkio bidegorriari, Elizalde Ikastetxeko transpatioarekin lanean jarraitu



dugu, ur hoditeria berrituko da Arraguan, Karrikako eta Ergoingo frontoiak atonduko dira, Altzibarko gune estalia gauzatuko da eta ikasketa gela berria egingo da.

Dirulaguntzei ere aipamena egin nahi izan diegu aurten, Europako EDIL dirulaguntzen bidez 1.000.000 euro jaso dugulako bidegorria ardatz izanik lan ezberdinak egiteko: Arditurriko irteera tunelak berritzeko, Altzibar eta bidegorriko lotura berriak egiteko, Altzibarko gune estalia eta bere ingurua atontzeko... Horrez gain, LIFE izeneko dirulaguntzara aurkeztu gara, Elizalde Ikastetxea berritzeko 5.000.000 euroko proiektu batekin.

2026 urteari dagokionez, **mugikortasunean** aurrerapausoak emango ditugu: Lanbarren eta Ugaldetxoko poligonoetako trafikoaren azterketa egin da eta orain hobekuntzarako proposamen zehatzak egingo ditugu. Helburua proposamen zehatzak Foru Aldundiko garraio eta azpiegituren sailera bideratzea izango da, haiena baita konpetentzia.

Hondakinei dagokionez, olio jasotzeko makinak jarriko dira. Olio ontzi berezietan bilduko dugu, makinak olio potoa jasoko du eta poto berri bat itzuliko digu, birziklatzen jarrai dezagun. Poligonoetako hondakin bilketa udalak kudeatuko du hemendik aurrera, birziklatze tasak asko hobetuko dira eta hondakinen tratamenduko gastuak gutxitu egingo dira, ondorioz hondakinen bilketan dugun defizita gutxitzen lagunduko du. Rafiazko poltsen sistema herri guztira zabalduko da Arraguako eta Rafael Pikabeako froga pilotua egin ondoren. Poltsa bana banatuko da hasieran (familia ugariei 2 poltsa), gehiago beharko balitz udaletxean eskatzea nahikoa litzake.

Burujabetzek ere segida izango dute 2026an: Haragi zirkuitu motza sortzeko proiektua aztertuko da, jangelak bertako produktuekin hornitzeko lanketarekin jarraituko da, Herriko zaintzaileen mapa osatuko da, energia berriztagarrien instalazio berriak aztertuko dira (hidraulikoa eta eguzkia) eta kultur agenda bateratuko duen aplikazio bat sortuko da.



	2026ko inbertsioei dagokionez, Altzibarko gunea estalia amaituko da, Ergoien auzoa bidegorria lortzeko bide berriak egingo dira, Altzibarren Artikutzako trenaren interpretazio gunea jarriko da, Arraskularre kaleko zoladura berrituko da, Zilar kalea eta autobus geltokirako bidea txukunduko da, bizikletentzako aparkaleku seguruak jarriko dira Arraguan eta EH plazan, haur parke bat estaliko da eta ikasketa gela eta liburutegia berritzeko proiektuak abiatuko dira. Etxebizitza plana dela eta aipatu nahi dugu hau ere hondakinen gaia bezala, ertz ezberdinetatik landu beharreko gaia dela. Promozio berriak herritarrekin landu dira eta landuko dira (ELI 6, Arragua, Iturriotz...), etxebizitza tasatuak zozketa bidez salerosteko neurriak hartu dira, etxebizitzaren inbentario zehatza egiten ari gara, etxebizitza turistikoak arautzeko neurriak hartuko dira eta jada hasiak gara Oiartzun eremu tentsionatu izendatzeko lanketarekin.
Ordenantza fiskala eta aurrekontuak	Lehengo urtean egin ziren aldaketa esanguratsuenak, aurten aldaketa gutxi egin dira. Gure helburuetako bat bada errenta baxueneko bizikidetza unitateak laguntzea eta honetarako salbuespen ugari jasota daude egoera zaurgarrian dauden herritarrak babeste aldera. KPIaren araberrako igoera aurreikusten da, alegia %3koa. Ez ohiko azken igoera bat jasota dago hondakinen tasan, aurten %18ko igoera izango da. Lehengo urtean ere igoera berezia izan zuen tasa honek, Europako legearen eskakizunetako bat zerbitzuak defizitarioa ezin duela izan dioelako. Herritarrei aplikatuko zaien ez ohiko azken igoera izango da. Orain poligonoetako lanketa egingo baita. Aurrekontuei dagokionez, 2026rako udalak 21 milioi euroko aurrekontua izango du.
Auzoa	<u>-Lehengo urteko eskaerak:</u> • Aparkalekuan zaborrontzi handiagoak jartzea. Printzipioz ez da ikusten. Biltzaileek ez digute esan gainezka egiten dutenik. • Oiartzun Irunekin hobeto komunikatzeko beharra. Oraingoz Irunekin ez dugu lortu hobetzea komunikazioa, topoa jarraitzen du izaten aukerarik hoberena, Hondarrabiarekin lortu duguna aipatzeko.



- **Autobus geltokia hobetzea.** Aztertu ondoren dagoen bezala ibilgailuen abiadura murrizteko laguntzen du eta ondoko zebra bideari ere babesa ematen dio, autobusari hor denbora askoan egoteko aukera emango bagenio pasabidea arriskuan jarriko genuke.
- **Xorrola Gurutzera iristeko aukera.** Xorrola auzo guztietara joateak zerbitzua moteltzen du, eraginkortasuna galduz.

-Egitekoak:

- **Zebrabideari badena jartzea.** Eskaera luzatu genion Foru Aldundiari eta ezezkoa izan zen beraien erantzuna. Orain parkineko obrarekin espaloi zati bat kontuan hartu dugu baimena eskuratzeko asmoarekin laster batean.
- **Plazatik Irun aldera espaloia.** Aldundian idatzi bat babestu genuen alderdi guztiek gurutzetik Irunera bidegorri bat lantzeko.
- Eute lurretako euri uren hoditeria.
- Aroztegi ondoko zubia berritzea.

- Galderak eta eskaerak:

- **Zuhaitzen inguruan:** Akazia zuhaitzen inguruan kezka azaldu du herritar batek. Inguruko herritan hauek mozten ari direla kontatu du eta honekin kezka azaldu du. Bestetik, intxaurrondoak eta gaztainondoak bi bazterretan landatzea proposatu da.
- **Energia bulegoak zein ordutegi duen galdetu du herritar batek, joan izan denetan itxia topatu duelako.** Ordutegia: Astelehenero, goizeko 9:00etatik 14:00etara eta 14:30etatik arratsaldeko 16:00etara. Mendiburu kaleko 3. zenbakian egongo da kokatuta bulego berria. Doakoa da eta aurrez hartu behar da hitzordua, 943 344 160 telefonora deituta edo energia@oarsoaldea.eus helbide elektronikora idatzita
- **Burujabetza prozesua (proiektuak) eskualdeko beste herrietara zabaltzen den galdetu du herritar batek.** Garatzen ari diren zenbait proiektu eskualde mailara eraman direla komentatu da, adibidez, lehen sektoreko ordezkapen zerbitzua.



- **Altzibarko gune estaliaren inguruan galdetu da.** Altzibar eta Karrika artean dagoen zelaian kokatuko dela esan da, Olaldeko etxeen atzean. Bertan zerbitzu gehiago ere egongo direla aipatu da, komunak kasu.
 - **Ikasle gela berriagatik ere galdetu da.** Garai batean Jubilatuen taberna zegoen lekuan jarriko dela jakinarazi da.
 - **Olio makinak non jarriko diren galdetu du herritar batek.** Sukaldeko olio jasotzeko balioko duen ere galdetu du beste batek. Makinak sei gunetan jarriko direla esan du udalak.
 - **Poligonotan sortzen den hondakin guztia nola kudeatuko den galdetu du herritar batek.** Garbitania enpresarekin lan egingo dugu, haiek jasoko dute hondakina, saltzeko aukera duena saldu egingo da eta bestea tratatu egingo da.
 - **Etxe bizitza promozio berrien inguruko informazioa eskatu da.** Erantzun da etxe tasatuetan izen emateko zerrenda jada irekita dagoela.
 - **Haur parke estaliaren inguruan, berria egingo den galdetu da. Edo lehendik dagoen parke bat izango den estalia.** Jada egina dagoen parke bat estaliko dela erantzun da.
- Gurutze auzoko galderak:
- **Aparkalekuaren inguruan ekarpena ezberdinak jaso dira: Zaborrontziak lekuz mugitu dira, beteta egoten dira eta agian maizago hustu behar dira, mantenu minimoak egin behar dira, puskatutako piboteak eta seinaleak konponduz adibidez.** Udalak ekarpenak jaso ditu.
 - Bide gorrian, txakur kakak botatzeko zaborrontziak jartzea komeniko litzake.
 - **Aparkalekuko obraren inguruan: Auzotarren iritzia kontuan hartzeko eskatu da.** Autobus aparkalekua bakarra izateak ere arazoak ekartzen dituela adierazi dute. Auzotarrekin gaia landuko dela esan du Udalak.
 - **Autobus geltokia (tokia) oso arriskutsua dela adierazi dute. Horri buelta bat eman behar zaiola esan dute.** Aparkalekuaren obrarekin gaia landuko da.
 - **Aportazio gunearen ingurua askotan zikina egoten dela adierazi da. Arratoiak egoten dira, kotxeak gaizki aparkatuta...** Gaia aztertuko da.



	• Bide gorri ondoan, zaldi tokia garbitu beharko litzake. Jasota geratazen da, ikusi behar da Udalaren eskumenekoa den edo ez. • Uralitaren jasoketaren inguruan kezka azaldu du auzotar batek. Uralita biltzeko soluzio on bat jartzen ez den bitartean, edozein tokitan azaltzen jarraituko du. Udalak inplikatu beharko luke, eta arazo honi heldu. Udalak jakinarazi du enpresa aditu bat ibili dela Udalarentzat erregistro lanetan eta egun zerrenda bat dugula uralitaren kokapenekin. Honen inguruko lanketa egingo dugu datozen hilabeteetan. • Olio makina Gurutzen ere jartzeko eskatu da. Udalak eskaera aztertuko du. • Bazterrak txukuntzen egitasmoaren berri galdetu da. Udalak erantzun du herriko talde bat ibiltzen dela lan horietan. Auzotarrak antolatzen badira Udalak materiala utziko ote lukeen galdetu da eta udalak baiezkkoa esan du. • Hondakinak jasotzeko, makina ibiltaria jartzea proposatu du bizilagun batek. Balorazio orrian idatzi du bere proposamena. Beste herri batzuetan jarri dela dio eta balorazio ona egiten dela. Udalak proposamena kontutan izango du.
Itxiera	Asistentzia orrian jasotako posta elektronikoetara gaurko akta bidaliko dela gogorarazi da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
bilera ongi gidatu da	9
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9
Auzotar kopurua	5
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8
Saioa probetxugarria izan al da?	9
Egunaren egokitasuna	8
Orduaren egokitasuna	8
Lekuaren egokitasuna	9